

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2008ko urriaren 31a / 248. zenbakia / 19. urtea

- **HERRIKO KONTUAK Udalbatzarra** 05
- **KIROLA Orioko herri krosa** 08
- **AIAKO BERRI Aiako igoera** 10-11

- **IRITZIA Garazi Urretabizkaia** 18
- **MOILA BAZTERRETIK Jon Agirresarobe** 19
- **HERRITARRA Joxemari Zaldua** 25



Mendeurrenean **Oteiza** gogoratzuz

Jorge Oteiza artista Orion jaio zela ehun urte bete ziren urriaren 21ean eta ospakizunetan murgildu da herria haren omenez.

jaletxea
logelak
gazteategi
 Elkano auzoa
 943 13 16 06

ARKAITZ
Taberna
 Pintxoak,
 plater konbinatuak
 eta ogitarleko mundialak
 ABESLARI KALDEA, 1 TEL: 943 83 16 57

KOLON TXIKI
 taberna
 jaletxea
 Herriko Enparantza, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

edaritegia
ANTILLA
jaletxea
 Alameda Kalea, 2 - TEL: 943 83 21 04

Gure
Txoko
 Alameda Kalea

Goizeko
 KAFETEGIA
 943 83 28 55
 Aita Leizola, 33 behean - ORIO
 Aulobus parada ondoan

Gabon
TABERNA
 plater konbinatuak
 eta pintxoak
 Tfnoa: 943 83 06 09

ALTXERRI
 Kartak eraberritua
 Asteburuan, eguerdi eta igueretan,
 menu bereziak
943 83 07 62

ERROTA
 - Eztei ospakizunak
 - Banketeak
 - Kartak zabala
 - Eguneko menua (lanegunetan)
 - Oheak
Tfnoa: 943 83 54 65

Nahikari
 HAIR BENDA
 TIENDA DE PUERICULTURA
 Ayuntam. Kalea, 35
 28100 - Orio
 Tel: 943 83 34 30
 www.nahikari.es

tel/fax: 943 89 00 69
 Etxola kalea, 4 - 30.800 ZARAUTZ
URBIDE
 ITURGINTZA, BEROGINTZA
 GASA, BAINU ERAKUSKETA
 Plater konbinatuak, ogitarleko mundialak

islada
 BISTRO-KA ZENTROA
 Sheila De Miguel - Saray Cendoya
 Euzkaren kalea, 2 behean - Orio 30810
 Tf: 943 133 856
 e-maila: isladario@gmail.com

HAIZE BERRI
 taberna-jaletxea-kafetegia
 Plater konbinatuak,
 bokatak,
 hamburgerak,
 ratiok,
 eguneko menua...
 eta etara eramateko berbitzua!
 Sabea kalea, 1 - 943 83 16 77 Herriko enparantza ondoan

ZAPATA KONPONKETAK
 Lanegunetan: 09:00 - 13:00 eta 16:00 - 19:00
 Larrietan eta igueretan: 13:00 - 19:00
 Herriko enparantza, Orio

THE ACADEMY OF ENGLISH
A&E
 JUSTO KALEA 3, ZARAUTZ
 Ibai Ondo pl. 8 Orio
 Tel. 943 00 42 44
 943 83 51 91

bodegas ERRASTI, S. L.
 Eskuailerako banatzailea
 Zudugarai, Getariako Txakolina
 Ilagares, ardo gorri nafarra
 Bodegas Gailur: Señorio de Laurgain
 Gailur eta Ardanegi,
 Arabar Errioxako ardoak
 Euzko Gailur, 46 Orio • 943 83 03 86 / 83 58 52 • E-posta: bodegaserrasti@euzko.net.net

Automóviles ZARAUTZ
 OTROEN ZERBITZU ORZIALA
 irteerak, berrak eta berrak
 ZARAUTZ, Tf. 943 13 13 50

A&E
 The Academy of English
 Justo kalea 3, Zarautz | Ibai Ondo pl. 8 Orio
 Tel. 943 00 42 44
 943 83 51 91

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea

KARKARA taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabbarri

Erredakzio burua

Lore Berasaluze

Erredakzio taldeaMikel Aranzabal, Pat Cowie,
Miren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta**Aiako erredakzioa**

Eli Lasa eta Pat Cowie

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze

Testuen zuzenketaMiren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Egoitz Eizagirre, Tatiana
Naydenova eta Garazi
Urretabizkaia**Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

BanatzzaileakAne Etxabe eta
Ander Mujika (Orio)
Irene Aldai (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.100 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.

KARKARAn argitaratutakoa berremen
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

Tiriki tauki tauki

BITORIANO GANDIAGA

1

Tiriki tauki tauki
mailuaren hotsa.
Tiriki tauki tauki
mailuaren hotsa.
Hamasei harri lantzen
ari da Oteitza.
Ai oi ai! ari da Oteitza.

2

Tiriki tauki tauki
mailuaren hotsa.
Tiriki tauki tauki
mailuaren hotsa.
Mailua penazkoa,
harria gau beltza.
Ai oi ai! harria gau beltza.

3

Tiriki tauki tauki
mailuaren hotsa.
Tiriki tauki tauki
mailuaren hotsa.
Etsipen kolpe bat da
ukaldi bakoitza.
Ai oi ai! ukaldi bakoitza.

**PUBLIZITATE PREZIOAK****IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK

Euzko Jaurlaritzak

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Eskerrik asko, ikastola

Tarteka ttuntturroetan ari-tzeko lagun talde bat elkartzen gara, han edo hemen, joaleen klaskada entzun dadin bazterretan.

Ez gara, inolaz ere, talde profesional bat; eta, are gutxiago, dirua lortzeko koadrila, eta ez dugu, oraingoz, ttuntturroetan jarduteko geronen materialik. Orioko Herri Ikastolak utzi dizkigu orain arte, behin eta berriz, erabili izan ditugun bai joaleak eta baita ardi larru eta gainontzekoak ere.

Lerro hauen bitartez eskerrik eman nahi dizkiogu, ez digulako inoiz ezetzik eman eta beti gogo onez utzi dizki-gutelako.

TUNTTURROAK

GUTUNERAKO OHARRAK

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAren helbidera bidal daitezke edo gure lokalean eskuz entregatu (Kultur Etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera: karkara@topagunea.com

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin joango da; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

Gutunek, gehienez, 200 hitz izango dute. KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

€AJ: nahikoa duzue!

Euskal Herria txikitzen ari zarete lotsagabeki, herriaren nahiaren aurka eta isilik eta geldirik nahi gaituzue?

AHTa ezkutuan eraiki nahian ari zarete, lanak poliziaz betez, edozein altxamendu jipoituz eta horiek indargabetu nahian, beldurra sartuz.

Txikizio horren aurka ego-teagatik bakarrik euskal gaz-

teak jipoitzen dituzue. Zer duzue ezkutuan, zeren beldur zarete?

Diruzaleak. Herri honeta-ko arazo bakarra ETA dela sal-tzen duzue, jendea itsutzeko eta, atzetik, zuen helburu bakarrak betetzeko: dirua eta boterea. Euskal Herri aske ezkertiar bat nahi eta borrokatzen dugun guztiak kartze-laren eta torturaren mehatxupean jarri gaituzue, herria gelditu eta isilduko duzuela-koan. Faxistak. Inposaketa horien eta askatasun urraket-a horien aurrean beti erantzungo dugu.

Horrela ez goaz inora. Euskal Herriak daraman erritmoa gelditu beharra dago. Birziklatu, berrerabili, eseri, elkarriketatu... hori da bidea. Baina hau ez da zuen buruetan sartzen.

IBONI



ESKERRIK ASKO DENOI
Azaroaren 29an
GOZATEGI FRUTADENDA
itxi egingo dugu



Karkara aldizkariarekin harremanetan jartzeko e-posta:
Lehen: karkara@topagunea.com
Orain: karkara@karkara.com



PERS ANAK
AKO MAZ
Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...
Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27



Dorronoro Denda
1961etik zure enbena
AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN
Tel 943 83 09 37



ARISTERRAZU
jatelexea
Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

ZERGA GEHIENAK EHUNEKO BOST IGOTZEA ERABAKI DU URRIKO UDALBATZARRAK

Talde mistoa osatu dute EAE-ANVko hautetsiek

Hilaren 28ko udalbatzarrak gai ordenak jasotako 12 puntuetatik 11 onartu zituen; 3, aho batez.

Bixente Lasa EAko zinegotzi berriak dagokion kargua hartuz hasi zen urriko udalbatzarra. Iraileko bilerako akta aho batez onartuta, Udalhitz 2008-2010 akordioa onartu zen, aldeko 9 bozkekin. Beraz, langileen lan baldintza berriak arautu zituzten, soldataren zenbatekoa tartean: urtero KPI gehi puntu bat igoko da.

Auto taxi zerbitzua batz beste %7,5 igotzea eta kreditu aldaketak —aho batez— onartu ziren. Kreditu gehigarrietan, Bisiguaren eguna eta *Orion!* kenduta, 416.120,41 euroko gehikuntza izan da.

Urola Kostako Udal Elkartearen estatutuen aldaketa izan zen onartu ez zen gai bakarra, gehiengo absolutua ez baitzuen lortu. EAE eta EB-Aralar-ek aurka bozkatu zuten, aldaketa horiek Oriori ordezkari bat galtzea ekarriko diotelako (5.000-6.000 biztanle arteko herriari 3 ordezkari dagozkie eta estatutu berriak 2 izatea proposatzen du).

Bestalde, ikastolari zuzenean adjudikatu zitzaion Muntoko lursailaren lurrazal-eskubidearen lagapena. Jesus Rodriguezek lanak gelditzekeo dekretuarekin zer egingo zuen galdegin zion alkateari.

Udalean talde misto bat sortzea onartu zen gero. Leire Zinkunegik, Karmele Belaskok eta Joseba Goiburuk osatuko dute taldea.

Azken puntuan, EAren azken atentatuak gaitzetsi zituen Udalak.

ORDENANTZA FISKALAK

Ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketen arabera, zerga guztiak %5 igoko



Bixente Lasak bere aulkia hartu zuen eta EAeko zinegotziek demokrazia aldarrikatzeko kamisetak zeramatzaten. KARKARA

dira, urtarilaren 1etik aurrera, salbuespenak salbuespen: tartean, ibilgailuen zergari dagokionean, 16tik 19,99 bitarteko eta 20tik gorako zaldi fiskaleko turismoei %10eko igoera ezarriko zaie; ziklotoreetan, 125zk-ko arte-

koei urteko 9,70 euro; 125-250zk bitartekoei, 16,60 euro; 250-500zk bitartekoei, 33 euro. Zaborren tasa igotzeko, berriz, bi igoera portzentaia proposatu ziren: %10ekoa eta %20a. Aldeko 6 bozkekin, 2.a onartu zen. Urtean, beraz, 12,80

euro gehiago ordaindu behar da zaborra. Ileapaindegia eta podologia zerbitzuetako tasak egokitzea eta Azurza etxeko apartamentu tutelatuak mantentzea ere erabaki zen.

MOZIOAK

EAren eta EHAKren ilegalizazioen aurrean bi mozio aurkeztu eta onartu ziren. Karmele Belasko, Joseba Goiburuk eta Leire Zinkunegirenak Udalak bi alderdien parte hartze politiko osoa ziurtatzeko konpromisoak hartuko dituela dio, besteak beste. EAren mozio alternatiboak, berriz, indar eta adierazpen politiko orok Euskal Herriko erakunde guztietako ekimen sozio politikoetan parte hartzeko eskubidea dutela adierazten du.

“Udalhitz 2008-2010 akordioa onartuta, langileen lan baldintza berriak arautu ziren, soldataren zenbatekoa tartean: urtero KPI gehi puntu bat igoko da”

“EAE eta EB-Aralar-ek Urola Kostako Udal Elkartearen estatutuak aldatzearen aurka bozkatu zuten, aldaketa horiek Oriori ordezkari bat galtzea ekarriko diotelako”

UDALAK BI SEKTOREEKIN BILERAK EGIN DITU BEREN PROPOSAMENAK JASOTZEKO

Arrantza eta nekazaritza suspertzeko ahaleginak

Udala, arrantza eta nekazaritza sektoreak suspertzeko ahaleginetan, bi arloetako eragileekin bildu zen, beren egoera aztertu eta proposamenak jasotzeko.

Udaleko Ekintza Ekonomiko-eta Enpleguko batzordeburu Karmele Belasko nekazaritzako eta arrantzako eragileekin bildu zen, udal aurrekontuak azaldu eta lehen sektorea suspertzeko proposamenak jasotzeko.

Arrantzako eragileen ustez, barrako zabalgunean egitekoa den azpiegiturak asko erraztuko die lana. Leandro Azkue Orioko Kofradiako idazkariak adierazi zuenez, kofradia hara pasatzeko proiektua bide onetik doa: *Portuetako Zuzendaritzak agindutako aldaketak jaso ondoren, proiektua beren eskuetan dago berriz eta oraingo honetan baiezkoa emango digutela ematen du. Gure nahia urte bukaerarako proiektua lizitatuta egotea da, eta ahal bada, exekututzen hasia.* Saregileek, berriz, bizi duten egoeraren berri eman zuten. Ima Peirok adierazi zuenez, ez da eguneroko lana eta, gainera, kanpora joan behar izaten dute jostera, askotan.

Etorkizunean, arrantzaleak merkatuan sartzeko, eroslea bertako arraina, eta unean unekoa, kontsumitzera eraman behar dela dio Azkuek.



Arrantzako eragileekin beste bilera bat egingo da azaroan.

KARKARA

“Eroslea bertako arraina, eta unean unekoa, kontsumitzera eraman behar da”

—Leandro Azkue

Horretarako, hemengo arrainan identifikatzeko lanetan ari direla gehitu zuen.

NEKAZARITZA

Nekazariak kezkatuta eta haserre agertu ziren batzarrerera. Udalarekin izandako harreman hotzak salatu zituzten eta orain arte kasurik egin ez dietela adierazi zuten.

Udalari azpiegiturak (errepideak-eta) eskatu zituzten, eta baserriarren bizi kalitatea hobetzea: teknologi berriak eta abar.

Belaskok, Orioko egoera ezagutzeko, bi alorretako diagnosi bana egiteko asmoa agertu zuen.

LABUR

BABES LEKUA Iratxera bidaia

Zaharren Babes Lekuak antolatuta, herriko jubilatuek Iratxera bidaia egingo dute azaroaren 21ean. Hilaren 11n eman behar da izena eta egun berean banatuko dira txartelak ere, 16:30etik 18:30era. 30 lagun baino gehiago lekurik gabe geratzen badira, 2. autobusa ere osatuko da.

Bestalde, Kutzaklagunduta, *elkarren arteko komunikazioa eta harremanak hobetzen ikasiz* hitzaldia izango da azaroaren 3an, 18:00etan.

LEHIAKETA

Interpretazio zentroa

Orioko Udalak Brit Enean Euskal Herriko Donejakue Bideari buruzko interpretazio zentro baten dotazioa hornitu, instalatu eta abian jartzeko lanak kontratatze lehiaketa jarri du martxan. Azaroaren 17an bukatuko da proposamenak aurkezteko epea.

INGURUMENA

Birziklatzea

Urola Kostako Udal Elkarteak birziklatzearen garrantzia azpimarratzeko kanpaina jarri du martxan. Abenduaren 17a bitartean, herriko tabernak eta dendak bisitatuko dituzte, azalpenak emateko eta hondakinak gaika biltzeari buruzko txartela banatuzko.

AHOLKULARITZA
Fiscalia, laborala, kontablea

Eugenio Garmendia

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

AUTOAK AUKERA ONEAN

AIA ORIO

Telefona: 943 13 04 38

ITZIAR

kirolak

Tel. 943 83 31 03

Ille zaindegia

MARIJO

Neska eta mutilentzako

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

PIRATEN DANBORRADA ETA GRAFFITI LEHIAKETA IZANGO DIRA AURTEN, LEHEN ALDIZ

Berrikuntzak izango dira aurtengo sanikolasetan

Orioko Udala eta herriko zenbait eragile aurtengo sanikolasetarako festa programa elkarrekin ari dira prestatzen.

Dagoeneko, jarduera batzuk abian jarri dituzte.

2008ko sanikolasak lau festa egunekoak izango dira: abenduaren 5arekin, ostiralez, hasiko dira jaiak; San Nikolas eguna izango da 6a; Gau-pasa eguna 7a eta Euskal Jaiarekin bukatuko dira astelehenean.

Iazko San Nikolas jaien arrakasta ikusita, Orioko Udala eta herriko zenbait eragile festa programa mamitsua osatzeko elkarlanean hasiak dira. Egitaraua oraindik ixteko dagoen arren, berrikuntza batzuk izango dira: piraten danborrada, graffiti lehiaketa eta herri bazkaria, besteak beste.

PIRATEN DANBORRADA

Jaiari hasiera emango dien txupinazoaz OKK Gazte Asanblada arduratuko da. Ohiko festa hasiera alde batera utzi eta abordaje moduko bategin go dute: pirataz jantzita, danborrada ikuskizuna prestatzen ari dira txaranga, traka eta guzti.

Danborradan parte hartzeko izena emateko epea amaituta—50 bat lagun elkarrekin dira— entseguen berehala hastekoak dira. Urriaren 31n egingo dute batzarra, eta



Berrikuntzez gain, urteroko zenbait ekintza ere izango dira, buruhandiak tartean.

KARKARA

bertan erabakiko dute zein egunetan elkartu, eta, bide batez, danborren banaketa ere egingo da. Ikastolako pergolan bilduko dira, 21:30ean eta antolatzaileek bertaratze-ko deialdia egin diete izena emana duten lagunei.

GRAFFITI LEHIAKETA

Gaupasa egunean, Orioko 1. Graffiti Lehiaketa izango da Pelotari kalean, Farfara Taldeak antolatuta. Bertan parte hartu ahal izateko, gutxienez 15 urte izan beharoko dira eta festa egunean mar-

gotuko den bozetoa aurkeztu behar da—DINA 4an—kultur etxean, azaroaren 22a baino lehen. Finalistak antolatzaileek aukeratuko dituzte, aurkezten diren lan guztien artean.

Abenduaren 7an, goizeko 10:00etan hasiko dira margolariak lanean eta 17:00ak arteko denbora izango dute margoak bukatzeko. Graffitiak egurrezko xafletan egin beharoko dituzte.

Lehiaketako sariak oraindik zehazteko badaude ere, margolari bakoitzak 40 euro

Egitaraua ixteko dagoen arren, berrikuntza batzuk izango dira: piraten danborrada, graffiti lehiaketa eta herri bazkaria, adibidez

jasoko ditu margoen gastua kitatzeko.

Bestalde, herri bazkaria antolatzeko asmoa ere badu festa batzordeak.

 **ACTIVA**  **Akobe**

ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Albizu

Abeslari, 6 - Tel./fax: 943 83 12-17
48959 OLEA

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80. Mungikorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99



500 bat dortsal prestatu dituzte antolatzaileek, iaz baino lagun gehiago izango diren esperantzaz.

KARKARA

GOIZEKO 10:00ETAN ATERAKO DIRA HELDUAK; HAURRAK, 11:30EAN

Azaroaren lean izango da Orioko 3. Herri Krosa

Azaroaren lehen larunbatean izango da Orioko 3. Herri Krosa. Aurten, ordea, goizez izango da lasterketa.

Orioko Udaleko Kirol Batzordeak Orioko Herri Krosa antolatatu du 3. urtez. Azaroaren lean, larunbatarekin, izango da aurten, eta aldatetaren bat edo beste izango da: hirugarren edizio honetako lehia goizez izango da. 10:00etan hasiko dira helduak eta, horiek bukatutakoan, 11:30ean, haurrak. Ibilbideari dagokionez, berriz, hiru buelta egin behar ko dira hondartzara, guztira 11.400 metro.

SARIAK

Kategoria bakoitzean hiru sari banatuko dira: lehen sailkatuak 250 euro eskuratuko ditu, bigarrenak 150 euro, eta hirugarrenak 100 euro. Guztira hiru kategoria izango dira:

gizonezko eta emakumezko helduak; gizonezko eta emakumezko beteranoak —A, B eta C azpikategoriak—; eta haurrak—iazko edizioan haur txiki asko zirela ikusita, aurten berentzako ibilbidea zehaztu da—. Herriko lehen lasterkariak ere saria jasoko dute. Horrez gain, korrikalariak kamiseta bana jasoko dute eta, lasterketa bukatutakoan, banatuko diren hainbat opariren —talasoterapia saioak eta kirol materiala— zozketan hartuko dute parte.

IZENA EMATEA

Izena emateko epea zabalik egongo da lasterketa hasi baino ordu bete lehenago arte. Parte hartu nahi dutenek zerbait bide dituzte inskribatzeko: www.herrikrossa.com atarian, Laister kirol dendan edota Karela kiroldegira deituta (943 89 44 28 telefonoa). 8 euro ordaindu beharko dira

8 euro ordaindu beharko dira izena aurrez emanez gero; lasterketaren egun berean, hasi baino ordubete lehenago arte, berriz, 13 euro

izena aurrez emanez gero; lasterketaren egun berean, berriz, 13 euro.

Mikel Izquierdo kirol teknikariak adierazi duenez, Orioko lasterketa Behobia-Donostiako baino aste bete lehenago izateak korrikalari asko erakartzen duen arren, ikusteko dago zenbat lagun etorriko den, jaieguna baita aurten.

LABUR

SQUASHA

Agirre txapelkun

Iñigo Agirrek Zarauzko 2. Squash Txapelketa Azkarran irabazi zuen urriaren 25ean, iazko emaitza errepikatuz. Jokatutako partida guztietan gailendu zen Agirre. Finalean ere 3-0 (15-12, 15-11, 15-11) irabazita lortu zuen txapela.

Xabier Iribar oriotarrak ere txapelketa berean hartu zuen parte. Bigarren lehia irabazi bazuen ere, ez lehenengoa, eta ez zuen txapelketan aurrera egiteko izan, biak irabaztea beharrezkoa baitzen horretarako.

SASKIBALOA

Izagirre Euroligan

Unai Izagirre oriotarrak urriaren 20an hasi zen Euroligan jokatzeko aukera izango du, bere talde TAU Baskoniak fitxa egin baitio haiekin aritzeko.

Izagirrek oraingoz parte hartzeko aukerarik izan ez badu ere, gustura egoteko moduan izango da, noski, txapelketa primeran hasi baitu talde gasteiztarrek: 90-62 irabazi zion Fenerbahceri, Buesa Arenan.

ATLETISMOA

Ziani primeran

Urriaren 19an jokatu zen Donostiako 12. Oinezko Herri Lasterketan bigarren postua lortu zuen Kamel Ziani oriotarrak, Francis Komu keniarraren atzetik. 46 minutu eta segundo bat behar izan zituen Zianik lasterketako 15 kilometroak egiteko.

Hossain Kaanache, berriz, bosgarren sailkatu zen, 47 minutu eta 11 segundorekin.

PLAIEROETAN ARITUKO DEN NESKEN TALDE ORIOTAR BAKARRA DA

Xixarioko neskek liga irabaztea dute helburu

Bosgarren urtez jarraian Xixario taldeko neskek Zarauzko plaieroetan ariko dira futbolean. Urriaren 12an jokatu zuten lehen jardunaldia eta martxoan bitartean baloiaren inguruan ibili beharko dute.

Xixario taldeko neska taldeak Zarauzko plaieroetako denboraldia urrian hasi du. Hondartzan futboleant arituko den Orioko neska talde bakarra izango da. Mutiletan, berriz, bi talde daude: Kepa Loidi eta Unar.

Xixario taldean ez dira jokalaririk guztiak oriotarrak, taldean zumaier bat eta hiruna azpeitiar eta azkoitiar baitituzte. Azken urteotako emaitzak ikusita —2004az geroztik ligan sartu dira urtero eta azken hiru urteotan finalerdietan izan dira—, aurtengoa ere ligako garaikurra eskuratzeko asmoz hasi dute denboraldia. Ainhoa Loidi taldekideak adierazi duenez, urteroko gogo onez hasi dira futboleant: *Ondo pasa nahi dugu, horretara goaz eta. Ligan izateko, eta, zergatik ez, irabazteko esperantza badugu.*

JUSTU-JUSTU

Azkenean, taldea osatzea lortu badute ere, denboraldia hastear zegoela, jokalaririk bila zebiltzan. Izan ere, hiruzpantaluk taldea utzi zuten iaz eta denboraldia 12 fitxekin hasi dute. Hala ere, azken momentuan hiru lagun hartu dituzte: 2 azpeitiar eta 2 urtez taldekanpo egon den eta orain berriz itzuli den Nerea Uranga oriotarra.

Bestalde, partidako 30 euro ordaintzeko prest badaude ere, beren lehiak arbitratuko dituen epailea bilatu ezinik dabilta eta, norbait interesaturik balego, taldekideren batekin harremanetan jartzeko deialdia egin dute.



Hilean hiru bat partida jokatu dituzte Xixarioko neskek Zarautzen.

KARKARA

HASIERA MAKALA

Denboraldia ez dute nahi bezain ondo hasi Xixarioko neskek. Urriaren 12an jokatutako estraineko partidaren zuten punturik lortu. Atsedendira aldeko emaitzarekin (1-0) joan baziren ere, 1-3 galdu zuten azkenean. Loidiren ustez, futboleant txukun aritu ziren, baina bigarren zatian nekea nabaritu zitzaion oriotarrei, eta ez hainbeste aurkariei. Hala ere, denboraldi hasiera dela kontuan hartuta, lasai daudela dio: *Ez dugu elkarrekin entrenamendurik egiten, bakoitza bere erara jarduten da, ahal eta nahi duenean, eta taldeak elkar ulertzeko denbora behar du. Partidak jokatu ahal, hobetzen joango gara, noski.*

Zarauzko plaieroetan, Xixarioz gain, bi mutil talde ere arituko dira: Kepa Loidi eta Unar

Bigarren jardunaldian atsedena izan dute, indarrak hartu eta datorren azaroaren 2an, Tarin-Euskalduna taldearen aurka garaipena etxera ekartzeko. 12:00etan izango da lehia, Zarauzko hondartzan.

Faboritoez galdetuta iazko garaile izan zen Rovelli taldea azpimarratu du Loidik, berena ahaztu gabe, jakina.

LABUR

DARDOAK Neguko liga

Unar dardo taldeak Neguko 4. dardo liga antolatu du. Azaroaren 1ean hasiko da txapelketa eta 60 bat partaide arituko dira lehiatzen, cricket 200, 501 eta 301 jokoetan. Bakarka aritu beharko dute ligan; kopan, berriz, binaka.

Txapelketa bukatutakoan, jokalaririk onenari garaikurra eta lehen 16 sailkatuei afari batetarako txartela emango zaie. Gainera, *Bullshooter Europe*-ra joateko Holandarako bi bidaia zozketatuko dira.

MENDIA Finalistaren eguna

Urriaren 26an haur eta guraso ugari bildu zen Orion, Talai Mendi elkarrekin, Gipuzkoako Mendizale Federazioaren laguntzaz, antolatutako eskolarteko XXI. mendilehiaketa finalistaren egunean parte hartzeko. Izena 997 haurrek eman bazuten ere—horietatik 61 Orioko bi ikastetxeetako ikasleak ziren—kontaezinezko lagun pila bildu zen mendia martxaz gozatzen, antolakuntzak izenik emangabeko jendeari ere gonbita luzatu zion eta.

Balorazioa egiteko orduan, gustura agertu dira antolatzaileak, egitaraua espero bezala gauzatu zelako.



ARKAITZ IRURETAGOiena | IGELTSEROA

“Azkarrenak 2 minutu baino gutxiagoan egingo du igoera”

Buru-belarri dabil Arkaitz Aiako 1. Igoera antolatzen azaroaren 2rako. Oso animatuta aurkitu dugu, lasterketa pasio bihurtuta.

Nolatan sartu zara saltsa honetan?

Inguruan izaten diren rally etara joaten naiz: Bartzelonakoetan, adibidez, 7 urte segidan izana naiz; baina aurretan ez, hau antolatu behar izan dudalako. Betidanik gustatu zait ikustea eta ibilita nago karrerak egiten dituen lagun bati laguntzen. Andatzen, azken urteetan, festetako auto kros herrikoia antolatu dugu, eta jendeak eskatzen zigun zerbait gehiago egitea. Azpeitian badaude karrerak, baina hemen ez; beraz, 15 bat lagunekin hitz egin, eta Azpeitiko haien bitartez antolatu dugu. Guk ezin dugu gure kabuz antolatu, ez auto krosa eta ez hau, prestakuntzako eskakizun pilatik pasa gabe. Baina Azpeitiko Lagun Arte Eskuderiako babespean egin ditugu.

Hasi dira bidea prestatzen?

Etorri ziren begiratzerak eta, dagoeneko, San Pedrotik gora ikusiko dituzun numero batzuk paretetan. Karrerak irau bitartean leku horietan egon behar dute 3 pertsonak: bat ikurrinekin, zerbait gertatzen baldin bada; beste bat emisorarekin, informatzeko, eta hirugarrena, gasolina edo olio erortzen bada, hautsa botatzeko eta jendeari eusteko. Gipuzkoako federazioko bat ere etorri da, errepidea ikustera. Leku batzuetan zinta jarriko dugu, adierazteko non egon daitekeen jendea eta non ez, euskaraz eta gaztelaniaz. Leku horietan ez dago egoterik eta, zerbait gertatuz gero, sartu denaren kulpada.



Auzokideen laguntza eskertu du Arkaitzek.

KARKARA

Festetako autokros herrikoiaz gain zerbait gehiago antolatzea eskatzen ziguten

Eta autoen kontrola?

Larunbat arratsaldean, Andatza auzora etorriko dira korritu behar duten auto guztiak, kontrol administratiboa eta teknikoa egiteko: dena homologatuta duten; arnesak, kaskoa, gerrikoa, arropa, barrak, autoa geldituz gero kanpoan itzaltzeko duen botoia... Motorra ere begiratzeko diote, tranpa egin ez

Pilotoak seguru doaz. Arriskurik handiena kasurik egiten ez duen ikuslea da

dezan, lizentzia, aseguru... Eta norbaitek ikusi nahi baditu, 16:00etatik aurrera etorriko dira Andatzara.

Nola daude antolatuta karrera aurreko pausoak?

Igandean Andatzatik Aiaira bitarteko errepidea itxiko da 07:30ean, eta karrera 10:00etan hasiko da. Bitartean, karrerako zuzendariak

pasa izan behar du bide guztia ondo eta libre dagoen ikusteko. Minutuero aterako dira Andatzatik eta Azkueko base-ri inguruan bukatu. Denera hiru bider igoko dira. Bat proba moduan, haiek bidea ondo ikusteko, baina hartutako denborak ez du kontatzen.

Hurrengo bi igoeretan orden berean igoko dira, indar txikienetako kategoriatik hasita, eta azken bi igoeretatik azkarrena da irabazlea. Kilotroetan ez dira laura iristen, eta pentsatzen dut azkarrenak bi minutu edo gutxiagotan egingo duela.

Nongoak dira pilotoak?

Gehienak Euskal Herrikoak ibiltzen dira, puntuazioak balio baitu Euskal Herriko, Gipuzkoako eta Nafarroako txapelketarako eta Gazteen txapelketarako. Asturiasko batzuk eta Iparraldeko bakarren bat ere etortzea espero dut. Igoera honetako faboritoak? Euskadiko txapeladun Fran Cobo, Iñaki Alberdi eta Gorka Apalantza. Baina izen handi gehiago daude: Egoi Eder Valdés, Gorka Apalantza, Alberto Alonso...

Eta autoen artean denetatik dago 7 kategoriatan: auto arruntak, mundialeko karretan erabilitako World Rally Car-ak, oso azkar igotzen diren CM modalitatekoak, Kit Car-ak... Orain arte berrogeita hamazortzi dira. Eta, karrera hasi aurretik, Jabier Eizagirre aginarrak egingo du igoera Austin Metro R64 historikoan. Oso zaila da gaur egun horrelakorik ikustea.

Diru asko mugitzen da?

Honek kostua dauka eta diru laguntza behar da, nahitaez. Diru eske jardun gara, eta babestu gaituzten tailer, fabrika eta tabernen izenekin kar-

AIAKO LEIHOA

Hitz batzuk udazkenari buruz

Urteko lau aroek dute zerbait polita, baina udazkenak badu Aia inguru hauetan xarma berezia. Udaberriazikloaren hasiera baldin bada, udazkena emaitzak jasotzeko garaia da; naturak lotara joan aurretik bere produkzio guztia eskaintzen digu. Dotorea da, adibidez, aurten, sagastiek eskaintzen diguten ikuskizuna, sagarrondoak sagarrez guztiz beteta baitaude. Ikusten dudan bakoitzean, sagardotegiko giro atsegina etortzen zait burura. Udazkenak beste hainbat fruta, barazki, perretxiko eta abar amaigabea ekartzen dizkigu.

Beste berezitasunetako bat koloreen aldaketa da. Dena den, hemengoarekin alderatuz, nire jaioterrian, Errusian, udazkenean kolore berdeak

oso azkar eraldatzen dira, eta kolore gorri eta horiak nagusitzen dira. Horregatik, hango udazkena urrezkoa izendatzen dute. Udazkenarekin liluratua zegoela zioen errusiar poetak, Pushkinek, honela idatzi zuen:

Garai goibela begien liluragarri!

Atsegin zait zure agurreko edertasuna,

Maite dut naturaren zimel-

**Udaberria
zikloaren hasiera
baldin bada,
udazkena
emaitzak
jasotzeko garaia
da**

tasun aberatsa,

Purpura eta urrez jantzitako basoak,

Haien atarietako haize zarata eta arnas freskoa,

Eta olatu ilunekin estalitako zeruak,

Eguzki printza bakan, eta lehen izotzak,

Eta urruneko negu buruzuriaren mehatxuak.

Noski, udazkena iristea-
rekin oporrak bukatzen dira,

**Errusiar abesti
batean kantatzen
den bezala,
naturak ez dauka
eguraldi txarrik.
Goza dezagun
daukagunarekin!**

eta umeek eskolara joan behar dute. Baina, beste aldetik, hemengo udazkeneko lehen hilabetea oso dibertigarria da. Irailean igandero Ernion jaiak antolatzen dituzte eta jende pila bat joaten da, batez ere, eguraldi ona egiten badu. Aurten iraila oso ona egin duenez, ikustekoa zen Zelatunen sortu zen giroa: belarretan eseri, bokata jan, sagardoa edan, trikitixa entzun, dantza egin eta eguzkia hartu.

Egia da, udazkenak askotan euria, haizea eta hotza ere ekartzen ditu. Baina horrek ez du axola. Errusiar abesti batean kantatzen den bezala, naturak ez dauka eguraldi txarrik.

Horregatik, goza dezagun daukagunarekin!

TATIANA NAYDENOVA

TXOKOAK ETA JENDEA



Mikel eta Maider

Mikel eta Maider Lizaso irailaren 20an ezkondu ziren Aiako Donestebe elizan, lagun eta familiakoez inguratuta. Senar-emazte izendatu ondoren, Zubietako jatetxe batean izan zuten bazkaria.

Primerako eguna pasa zuten gonbidatu guztiek ezkonberriei esker eta eskerrak eman nahi izan dizkiete KARKARAREN bitartez.

Lagunek zorionsu izan daitezela opa diete, eta harakin txiki baten esperoan geratzen direla jakinarazi nahi diete.



Jorge Oteiza (1908-2008)

Bizitza eta lana estu-estu lotuta izan zituen Oteizak: gogo biziz egin zuen lan, grinaz bizi izan zen. Oriotarrari buruzko edozein biografiak azpimarratuko du mundu osoan erreferente dela eskulturan haren lana. Ezagutu zutenek, denek, nabarmentzen dute Jorge Oteizaren izaera berezia: samurra eta sentibera zen, poeta fina eta gogotsua; bazuen nortasun horretan alde zakarra ere, indarkeriaz azaltzen zituenean egiak eta gezurrak; eta deserosoa egiten zenean: pizgarri askotan, haserre iturri, besteetan. Ehun urte dira jaiotako zela, eta urteurrena aitzakia bihurtu dugu Jorge hobeto ezagutzeko.

ANA G. DE TXABARRI

O rion jaiotako zen 1908an, urriaren 21ean. Madrilerara joan eta medikuntza ikasten hasi zen, baina hirugarren mailan ari zela utzi egin zuen eta Arte eta Ofizio Eskolan hasi. Oteizaren lehen eskulturak figuratibokiak ziren. 1931n Gipuzkoako Artista Berrien IX. Lehiaketaren lehena saria lortu zuen.

1935ean Ameriketara joan zen eta han pasatako ia 15 urteek eskultore handia moldatu zuten. Sormen artistikoarekin lotutako urteak izan ziren haiek eta kubismoa edo

konstruktibismoa bezalako abangoardiako mugimenduetan ibili zen. Henry Moore-ren eskulturak eraginda hasi zen hutsunea erabiltzen, gerora Oteizaren lanetan halako garrantzia hartuko zuen zuloa, hutsa. 1938an Itziar Carreñorekin ezkondu zen.

1948an itzuli zen Euskal Herrira eta materia eta hutsaren arteko harremanak ikeritu zituen beste gauzen gainetik: Oteizaren lanek gero eta materia gutxiago zuten, espazioa eta hutsa, izpirituekin lotuta dauden arloak lekua hartzen joan ziren.

1951n Milango IX. Triena-

lean ohorezko diploma jaso zuen, eta 1957an Nazioarteko Eskulturako Sari Nagusia eman zioten Sao Pauloko Bienalean.

Baina, nekazegina gizona, beste bideak ere hartu zituen Oteizaren sormenak, eta filosofiari edo poesiari arreta handia eskaini zizkion.

1954. urtean, Arantzazun lanean ari zela, basilikako apostoluen eta ama doloretakoaren eskulturak egiten, Donostiako gotzainak lanak bertan behera uzteko agindu zion, halako lan bereziak Vatikanoko baimena behar zuela-eta: Erromatik zer esaten

zuten zain geratu zen Oteiza, lanarekin jarraituko zuen ala ez jakiteko. Egitasmoa ez zela onartu esan zioten 1955ean eta, etsita, alde egin zuen handik: hantxe geratu ziren urteak eta urteak lurrean etzanda eskultura haiek, bide bazterrean. 1968an bukatu zuen lana.

Polemika zalea ere izan zen eta horietako batean agertu zen Euskadiko agintariez nazkatuta eta Nafarroako Gobernuari eman zion bere fondo artistiko eta dokumentala. 2003an inauguratu zen Oteiza museoaren Altzuzan bilduma horiekin guztiekin.



JORGE OTEIZAK ESANAK

“Ni eskultoretatik hitzak ateratzen zirela konturatu nintzen”

QUOSQUE TANDEM...! LIBURUAN

“Bai, arraunlariak dira —Arantzazuko apostoluak—, hamalau irudientzat lekua zegoen eta hamalau ziren traineruko gure arraunlariak; eta txaluparen neurria zein zen galdetu nuen eta hamabi metro luze: hain zuzen, ate gaineko frisoak duen zabalera”

APOSTOLUEI BURUZKO
HAMAİKAGARREN AZALPENA

“Arantzazuren aurka daudenek ez dute presarik; baina nik bai, urteak kontatuta ditut nik”

DONOSTIAKO GOTZAINDEGIAK BETOA JARRI
AURRETIK, ERANTZUNAREN ZAIN ZEGOENEAN

“Eskultura kontzeptu bezala nik hasi nuen eta nirekin amaituko da, gainontzeko guztiak sentimentuak adierazteko moduak dira”

ARANTZAZU ALDIZKARIA

“Nire herria maite dut, sakonetik; nire herriak amorrarazten nau, sakonetik. Sakonetik ezagutzen dut, sakonetik zait ezezaguna. Nire bizitza ematen diot, sakonetik ematen diot nire heriotza. Daukadan guztia ematen diot; areago, ez daukadan guztia ematen diot. Naizela inoiz jakingo ez dudana, inoiz jakitera iritsiko ez garena. Zertarako mundutik, Jainkotik, balio ez digun gizaki bat, aparte?”

EXISTE DIOS AL NOROESTE





KARKARA / OTEIZA SU VIDA SU OBRA SU PENSAMIENTO SU PALABRA LIBURUA



JORGE OTEIZARI BURUZ ESANAK

“Artearako gaitasun apartako gizona zen. Horretaz gain, oso berezia ere bazen: XIX. mendeko artista erromantikoen izaera zuen. Gehiegikeria hutsa zen, ez zuen neurririk ezertarako: itzela zen eta,aldi berean, txiki-txikia; eskuzabala eta zekena; edozein gauzarekin berotzen zitzaion gogoia edo, tristurak jota, negarrez hasten zen. Dena zen batera. Dena zen eta ez zen ezer”

PEDRO MANTEROLA

“Utzi Oteizari nahi bezala errezatzen. Nork bere erara egiten du otoitz. Guk ez badugu Oteizaren otoitz egiteko modua ulertzen, Jainkoak ulertuko du, eta baita hurrengo belaunaldiek ere”

JOSE ARTETXE

“Mailuarekin zizelari azken kolpea eman zionean, isilik gelditu zen denbora luzez sortu berri zuen irudiari —Ama Doloretakoa— begira-begira. Bat-batean, bihotz forma emanez lantzen ari zen aurpegitxoari laztan egin zion, eta izugarritzko errespetuz musu eman zion”

MIGUEL PELAYO OROZCO

“Oteiza, tradizioa eta abangoardiaren artean artea, artean, artea, lau burdin pusketetatik atea, atera, artera, gizartera. Artea, kultura, eskultura, esku hura.”

IBAI ESOAIN ETA XABIER SUKIA

“Jenio bizikoa, otea, jenio biziagokoa, arantza, Arantzazu, pentsamendua, poesia, filosofia, hitza, Ote-hitza, Oteiza.”

IBAI ESOAIN ETA XABIER SUKIA



Jorge Oteizaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko egitarau berezia antolatu du Orioko Udalak urrirako eta datozen hilabeteetarako. Hilaren 14an Judith Huegun ipuin kontalariak Oteiza ezagutzeko ipuinak kontatu bazituen ere, ekitaldi nagusia Oteizaren urtemuga izango zen egunean egin zen: urriaren 21ean, lagun ugari bildu zen Orioko San Nikolas elizan; tartean, besteak beste, Carmen Oteiza —artistaren arreba—, Alberto Gosa —Carmenen senarra—, Begoña Eguren

—Oteizaren zaintzailea haren azken urteetan— eta eskultorearen adiskide ugari; besteak beste, Juan Luis Mendizabal *Mendi* eta Joxe Anjel Iriarai.

Ekitaldia zimitorio berrian egitekoa bazen ere, eguraldi txarrazela-eta, San Nikolas elizan egin zen gorazarrearen zatirik handiena. Oteizaren bizitzari eta haren lanari errepaso txiki bat emanda hasi zuen saioa Iñaki Iturainek. Berehitzetan, frankismoaren garai beltzenean hutsune espiritual eta kultural izuga-

rria zuen gizartea esnatzen saiatu zen Oteiza: *Gizarte lokartu hark behar zuen akuitua izan zen Oteiza; gizarteak esnatzeko behar zuen pentsalaria eta ekintzailea; askoren zat utopiara bideratuko zituen argia.*

Omenaldiak iraun zuen ordubete pasatxoan musika, dantza, poesia, omenduaren irudiak eta artistaren eta artistari eskainitako hitzak entzun eta ikusi ziren: *Fragmentos* bideoaren zatiak eman ziren; Ibi Arrizabalagak artistaren poesia batzuk errezitatu

zitu; Unai Manterolak bertso batzuk abestu zituen; Maria Jesus Elorzak Antton Valverderen *Hutsa* abestia kantatu zuen, Izarra Aristi esku soinuarekin alboan zuela; Jurdana Otxoak eta Egunsenti otxoteak Luis Romeroren *Androkanto* kanta eskainizuten, biolinarekin lehenak eta kantuz bigarrenak; *Nadie es profeta en su tierra* lana entzun zen; eta Xabier Sukiak eta Ibai Esoainek hitz jokoak eta bertsoak erabili zituzten Oteiza goraiatzeko. Jon Redondo alkatearen agurra-



ren ondoren, *Oroitarrari* xaflak bistarazi, eta bukatu zen ekitaldia.

Egun berean ireki zen, baita ere, herriko bi ikastetxeetako ehuna haurrek Oteizaren lana ardatz hartuta egin dituzten lanen erakusketa. Buztina, klariona, edari latak, papeira, hitzak... erabili dituzte Oteiza omentzeko. Eskultorearen beraren lan batzuk ere ikusgai izan ziren.

Urriaren 22an, Pello Zaballak Oteiza Arantzazun lanean aritu zeneko berak bizitako bizipenak kontatu zituen, bes-

teak beste. Kultur etxeko areto nagusia txiki geratu zen, aurretik aipatutako erakusketa eta fraile frantziskotarra entzutera joan ziren ikusle kopurua kabituezinik baitzeuden.

Ander Lipusek *Hala mintzatu zan Zappatrusta* bazarriketa eskaini zuen 23an, ostegunez. Ordubete inguruko emanaldiak barre algaraz bete zuen kultur etxeko aretoa.

Bilboko Txistulari Bandak ere kontzertua eman zuen urriaren 26an, igandearekin.

Elizako zimitorioan, 12:40an hasita, herritar ugari bildu zen bizkaitarren doinuak entzuteko. Garikoitz Mendizabalek zuzendutako taldeak —Idoia Kareagak, Gorka Zabalek eta Asier Gartzia osatzen dutelaukotea— 10 abesti jo zituen emanaldian: Deika, Minuetoa, Osio Bideko Polka, Anton, Amaitzeko Soina, Leiala, Goiz Ereski Alborada, Ausarditsua eta Semetxoaren Poza.

Azaroan ere zenbait ekitaldi izango dira: 13an, Maitte Franco ipuin kontalaria

izango da liburutegian.

Urriaren 29tik azaroaren 26a bitartean, *Oteiza. Bizirako proiektua* erakusketa ikusgai egongo da kultur etxeko areto nagusian. Astelehenetik ostiralera irekiko da, 16:00etatik 20:00etara.

26an bertan, *Fragmentos* pelikularen bi emanaldi eskainiko dira kultur etxean: 15:00etan lehen emanaldia; 19:00etan bigarrena.

27an, berriz, Oteiza poliedrikoa mahai ingurua izango da Jon Sarasua eta Jose Anjel Irigarairekin.

ADARRETATIK HELDUTA

To! Gaztetxea!

Lehenengoa dudan iritzi artikulu honetan, Lezin omen nuen berduren balio nutrizionalari buruz idatzi, ezta Anai Handiko partehartzaileei buruz ere. Ez omen da erakargarria. Atrebentzia galanta nirea, ezin erabakirik nembilela KARKARAKOEI gaia eskatzera ausartu nintzenean. Ezzuten zalantzarik izan: to! Gaztetxea! Eta isil-isilik burua makurtu eta pantaila aurrean jarri behar. Natorren, beraz, harira...

2008ko irailaren 26a. Iritsia zen azken urtean borrokan igarotako denborak bere fruitua emateko unea. Herriko lehenengo gazte festen hasiera, gaztetxearen inaugurazioa. Txupinazoa plazan, trikitilariak martxan eta dena prest gazteon etxe berria izango dena konkistatzera joateko. Kalejira ederrean iritsi ginen jada sekretu publiko bihurtua zen kokalekura. Iritsi, H jaunaren hitzaldi hunkigarria entzun (ia malko eta guzti, aupa hi!) eta hara non heldu zen askorentzat sorpresa! Bertaratu-tako batzuk edozein ate zein leiho botatzeko prest, zituzten bota gogorrenekin atera baziren ere, gogoarekin geratu behar. Atzean geratu dira jada garai bateko okupazio ilegalak, eta Orion, Euskal Herriko beste zenbait herri-herri bezala, bide legalari heletzea erabaki da, guztion onerako. Udaletxearekin eta lokalaren jabearekin negoziatu da, batzuentzat harri-



GARAZI URRETABIZKAIA
IKASLEA

Gaiak gustu eta kolore guztietarako iritziak sortarazi ditu herrian. Gaztetxearen historia inflexio puntu bat izaten ari den seinale.

Zorionak, beraz, guzti hau posible izateko lanean ari zareten guztioi

garri suertatu den akordio batera iritsiz. Udalak ordainduko du gaztetxea izango denaren errentaren zati bat, eta beste zati bat gazte asan-

bladaren esku joango da. Aurkikuntza kontzeptual bat, batzuen ustez, beldurrezko keinu ezkutua besteen ikuspuntutik; gaiak gustu eta kolore guztietarako iritziak sortarazi ditu herrian. Gaztetxearen historia inflexio puntu bat izaten ari den seinale. Baina ze Kristo! Hobe klase guztietako iritziak egotea inork garrantzirik eman gabe pasatzea baino.

Egia esan, ez naiz hasiko zein bide iruditzen zaidan hobea aipatzen, erabaki orok baitu bere alde on eta txarren bat. Ados nagoela soilik esango dut, ados eta gustura. Herri honetan gazte mugimendua gero eta nabariagoa delako, gero eta sendoagoa. Argi geratu zen hori lehenengo aipatu ditudan gazte festetan. Antolatzaileen taldea handia izan bazen ere, parte hartzaileen kopuruak harrituta utzi baitzituen herritarrak. Lehen pausua emana dago, beraz. Orain falta dena da gazte festen arrakasta gaztetxera zabaltea eta bertako irudiak behin eta berriz errepikatzea, han bizitako momentuak oroitzapenen ozeanoan ito ez daitezen.

Zorionak, beraz, guzti hau posible izateko lanean ari zareten guztioi, ametsak betetzea posible dela sinetsi eta bete ahal izateko borrokan zabilzatenoi. Zorionak eta urte berri on! Ea ordurako errentapeko gaztetxean elkar topatzeko aukerarik daukagun...

NIRE HONETAN

Irabaziak txangorako

Ekonomikoki hain egogorrek diren egun hauetan, oporralditxo proposatu nahi dizuet. Ikusiko duzue, ez dago ezetz esaterik! Logroñora abiatuko gara larunbat goizean, eta iritsi bezain pronto supermerkatu joan. Bertan, ordu pare bat emango ditugu hilabete osoan erabiltzen ditugun galkorrek ez diren gauzak erosten. Ez izutu, furgonetetan kabituko dira, ondo antolatuz gero. Zailena gaintuta dugula, gozatzera joango gara: bazkari ederra, paseo bat, edo museoren bat. Iluntzean —ez ahaztu orain lehenengo ilunduko zaigula— geletara joan, arropa aldatu, eta nahi duguna egingo dugu. Dantza? Zergatik ez. Basoerdi bat hartu? Gustura. Eta afari ederra antolatuko dugu hango jatetxe batean. (Pena ematen dit hemengoek ere guk dugun zortea ez izatea. Bain, tira!) Ezer ez zaigu faltako, zeren ez duzu ahaztu behar, hau gasturik gabe aterako zaigula.

Nolatan? Oso erraza. Euskal Herriko supermerkatuetan erosketak askoz ere garestiago ateratzen omen zaizkigu hangoetan baino. Beraz, hain eginez gero, beste guztia doan aterako zaigu. A ze pagotxa gurea!

PAT COWIE

Pinturak ELKAR

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

Abendaño industrialdea
940 83 08 45 / 619 80 23 35
ZARAUTZ

Kbikiladenda- Uma arropa

argine

www.lasone.com/argine
Tel. 943 13 48 89

2,5eko DESKONTUA FAMILIA UGARIEKIN TXARTELAREKIN

IMANOL AGUIRRE MANTEROLA

ARKITEKTOA

OBRA PROIEKTUAK
ETXE BERRIAK ERABITZETIK
ZARRABERTZETIK KANPITIK
ETA BARNUTIK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK
OBRA ZUZENDARITZA
TXOSTENAK

MOBILA: 636-957-480
URRIBI ERREKINDEA, 3-1

MOILA BAZTERRETIK

Eskulturak espaloian



JON AGIRRESAROBE TORROTXO

Plazara bidean 7 kontu nituen. Herdoil kolorekoak gehienak, Oteizaren androideen formakoak. Herritarrak burua beherantz makurtuta, hogei zentimokoaren bila bezala atzekoari kontuz eta argi partea pasaz.

Eguraldi grisa denean eta euririk hasi ez badu, aterkiarekin seinalatzen dira postreak. Poste atzean mutil koxkor koadrila despistaturen batek eskultura noiz zapalduko. Azkenean, etxekoandreari itsatsi zaio paketea zapata azpian. Alde-rik alde zapaldu du señorak.

Ez dut orokortu nahi. Ez dut zakurjabeen gremioa kritikatzeko eskubiderik izango. Denek jasotzen dituzte zakurren kakak. Lasaitzera ateratzen dira, maskotari korrea lepotik askatzearekin batera libratzen dira zakurrak, kale erdian, disimulorik gabe. Ezta beharrik ere.

Ez naiz zakur zalea. Itsusiak iruditzen zaizkit ia denak. Bai, nire arazoa da. Beldurra ematen didate lotu gabe dabil-tzanak, gure iloba baino handiagoak direnak, arnastestuka

eta baba dariola doazenak. Hori ere bai, nire arazoa da. Jolastu egin nahi du esan izan didate jabeek. Nik, ordea, ez dut jolastu nahi, lotu ezazu mesedez. Ez du ezer egiten? Bai, otzana eta ederra bezain artista da zure zakurra, eskulturak egiten ditu espaloian. Kaka egiten du. Zu zara ezer egiten ez duena. A, nireak belarretan bakarrik. Eusko Gudariko zuhaitzen karratu horietan ere bai, erdi erorian daude zuhaitzak eta ez zaie gaizki etorriko. Hara, Kukuarriko gurutzean eserita nagola zakurraren muturra belaur artean sentitzen badut, beldurtu bai, baina ez naiz haserretuko. Orain, begiratu kalera eta esango didazue. Zakurrek egindakoak direla pentsatu nahi dut.

Amaitzeko, galdera. Azter-

Otzana eta ederra bezain artista da zakurra, eskulturak egiten ditu espaloian. Kaka egiten du. Jabea da ezer egiten ez duena

tu beharreko gaia iruditzen zait teniseko piloten kasua. Aristerrazun eta palarekin jokatzeko dugu guk. Krisi garaian ere irabazi handiak izango dituzte ferreteriak, kirol dendak eta txinoak. Zein dira hausten ez direnak? Non saltzen dituzte? Ba al dakizu zer esaten den tantoa galtzen den bakoitzean, edo pilota puskatzen denean? Kaka!

BEREZI

MODA

Arrantzale kalea, 3
Tel: 943 89 05 29

URTE GUREKIN OSPATZEKO
%10eko
DESKONTUAK
Azaroaren 1etik 15era

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAR

943 83 05 37 / 943 83 27 47

JUAN PEDRO FERNANDEZ OSA
JAZZ ZEMARAREN PSICOLOGO KIDURGIATIA
ARIL KULARITZA BIKOTE ARTXO GATAKETA
FREETAKUNTZA TREBETASUN SOZIALETAN
916 98 26 47
aditza@jpo.es

MA*NA lokutorioa

Enaia enparantza, 1
20610 ORIO (Gipuzkoa)

Tel./Fax: 943 13 50 82
loca-mans@euskalnet.net

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
 TIORROKAK - BALBUAK





Santiago auzoa - 18 postakutxa
 Tel. 943 830 743
 Fax. 943 134 634
 E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
 20 810 ORIO - GIPUZKOA

Esforako balbula
 AENOR kalitate ziurtagiriduna

Igo zaitoz haize berrietara!



Galeria I

943890416 - 677149932
galeria1orio@hotmail.com



ARIDATZA modas

Euskal Gudanak, 7 - 943 83 1088 - ORIO

Izarra



ARGAZKIEN ERREBELATU DIGITALA MOMENTUAN

KODAK KALITATEAZ

Edozein euskarri digital,
 baita sakelakoen Bivista eta ere.

Bideo Produktzioa

Aritraga 15, Orio / izarra7@vodafone.es / 943 83 38 81

ardoak, urdaikiak, gaztak,
 kontserbak, janari prestatuak.

etxeraino eramaten ditugu



943 83 09 84

alta lertxundi, 36
 ORIO



INDO

Garraio frigorifikoa
 NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA



Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

TANATORIO ZARAUZ



EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldiaroko zerbitzuak
- * Belatorio gelak
- * Koroak, eskelak, irmitazioak...

Azaba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 88 49 37 / Fax: 943 88 46 48
 e-mail: harraspil@harraspil.net

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
 Telefon: 943 8312 36 Euzko Gudari, 5

ekonomista
 ko. zk. 14.281

ENPRESEN FINANTZA
 ETA AHOLKULARITZA

Begoña Aranegi
 Ekonomisten Euskal Elkargoa

Tel: 615 763 441

LEIHOLAN

Aholkularitza teknikoa eta erakusketak

Fabrika Agrate Induskaritzailea Agrate, 3. 20740 Zarautz	Erakusketak San Fronteiko, 1. 20800 Zarautz	Alta Lertxundi, 36. 20910 Orio Tel: 943 88 46 34
--------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------

ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artokaria
 finka administratzailea
 gestoria
 enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 86 itsasadarra@itsasadarra.com
 Ibai Ondi 4. behean, 20910 Orio

uranga
 autozerbitzua



Aliprox

Euzko Gudari Kalea 13-15
 ORIO
 943 83 38 75

AMILIBIA
 ENTZIO LAK, S. L.

larri pertsonen produktua
 eta instalazioak

guz erabilako lekuetatara
 arazo-ontzek



Olaskoegia auzoa, 52
 34 943 83 08 29
 faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com



Lehenengo trainerilla ligan

Goiko argazkia 60ko hamarkadakoa da, trainerilletako lehen ligakoa. Urte hartan, txapelketan jokaturako hamar estropadetatik zazpi irabazi omen zituzten oriotarrek. Bilboko uretan jokatu zen Espainiako Trainerilla txapelketako garaikurra, aldiz, ez omen zuten etxera ekarri, baina, bai, Galiziako A Coruñan izandako bateletakoa. Irabazitako estropada

horietako baten ondoren ateratako argazkia da goikoa, liga amaierakoa, seguru asko. Urte hartako trainerilla Juanito Lizarralde, Patxi Sarasuak, J.I. Erkizia, Antonio Mujikak, Jose Ramon Aizpuruak, Jose Luis Mirallexek eta Bixentiko Kortak osatu zuten.

Ezkerretik eskuinera, goitik hasita, hauexek dituzue argazkikoak: Juanito Lizarralde *Altxerri*, Jose

Ramon Aizpuru, Enrike Esnal, Anjel Esnal, ezezaguna, Joseinazio Erkizia eta Inazio Leunda *Sestero*. Makurtuta: Juanita Tolosa, Patxi Sarasua, Joseluis Miralles eta ezezaguna. Magalean dagoen haurra Jose Ignazio Esnal da.

ARGAZKIA: ARTXIBOA
INFORMAZIOA: PATXI SARASUA

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

Joana Murgiondo
Aseguru-agentzia

ASEGIURUA

CCCI
CARERA, SILVET, LACORT Y CIA, SA

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

Lizaso
dekorazioa

Eunko Gudari, 49
Tf: 943 83 07 84 FAX: 943 84 97 00

LURDES
ARTALDEGIA

Eunko Gudari, 4- Tel. 943 83 00 24

Allianz

Marigre Zaldúa
aseguru agentzia

Ibai Ondo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
fax: 943 83 57 52
e-maila: zaldua.delacruz.paz@allianz.es

KRITIKA



Herritar asko izan zuen begira, gazte festetan, Mahaster River taldearekin.

KARKARA

Unai Azkarate, edo Azkaiter Pelox, edo...

Autengoan ere heldu zaigu esku artera Danbaka musika taldeen-tzako lehiaketako bilduma preziatua, eta a zer sorpresa gurea; nola ez, Unai Azkarate *oriotarra* bertan da bere estilo bereziaz.

Jaiotzez bergararra den arren, urte bete pasatxo da gure artean bizi dela, Kosta tailerreko martxa irauli eta aukera duen bakoitzean herriko bazterrak alaitzen. Azkaiter Pelox modura ere ezaguna da, bakarlari gisa horrela ezagutarazten baita, eta Mahaster River rock tal-

dean aritzen da.

Danbaka DVD/CDa lahiaketako 20 talde finalistek zuzenean eskainitako kantu banaren bilduma da, eta Unai martxan dituen bi proiektuekin hartzen du parte. Mahaster River taldearekin Enrio Morriconeren *Per qualche dollaro in più* abesti ezaguna interpretatzen du. Bakarlari moduan, aldiz, *Ippaldera bidaia*. Azken abesti honetan, gitarra elektriko soinean hartu eta rockero zaharren moduan jotzen ditu akordeak, bere *showman* izaera agerian

utuz.

Nik Fly Shit hardcore taldean ezagutu nuen arren, gaur egun, erritmo biziak alde batera utzi eta doinu dantzagarriagoak sortzen dabil. Horretan ari da, behintzat, Orion sortu berri duen taldean (Azkaiter Pelox band, sanmartinetan estraineko kontzertua emango duena), herriko musikariekin.

Idatzi ditudan lerro hauek kritika baino gehiago omenaldi modukoak dira, merzei duelako, zeren kritikatzan hasiz gero...

MIKEL ARANZABAL

IKASLEAK IDAZLE



UNAI LIZARRALDE |

DBH 4

Aiako igoera

Laster da abian Aiako igoera, giro ona eta emozioa ziurtatua. Autozale guztiei ikusteko aholkatzen diet. Bidean zehar ikusleak aldendurik egongo dira eta emozio gehiena eta jende gehiena kurbetan egongo da. Igoera gehienetan bezala *ronda* ezberdinetan jolastuko da eta hiru txandetako denborak gehituta lortzen da azken denbora. Igoera gehienetan bezala, gainera, igoera jokatu behar duten auto guztiak hasieran pilatzen dira eta ederra izan ohi da autoak nola prestatzen dituzten ikustea. Probak egiten ari diren bitartean, autoek frenoak probatzean ateratzen dituzten soinuak eta gurgil soinuak ere ederrak izan ohi dira. Zerbaiten beharra izanez gero, Aiako herrira igo besterik ez dago, kilometro gutxira.

FISOTERAPIA - Garbaitz Arístegui eta Natalia Wierszow
NUTRIZIONISTA - Garbete Aizpuru

sinergia investigación fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

Orioko Ogia

ORIOGI

OPIL OKINOEGIA
frontoi ondoan
Ifnoa: 943 83 01 89

HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Oteizak Orioren izena eta izana goratu ditu, eta nahiz eta 2003ko apirilaren 9an hil, oraindik goratzen ditu. Zor hori kitatzeko bere obrako hutsunea irudikatu dugu bere omenezko xaflan.”

JON REDONDO

Orioko alkatea
Oroitarría oriotarrari
2008/10/21

“Nik uste Oteiza ezer izan bada, ikaragarri librea izan dela Jainkoarekiko kontuetan. Erlijio oso sana du, elizaren tradizioetik libre bada ere. Bere osotasunean, Itziarrekin da fededun.”

PELLO ZABALA

Fraila frantziskotarra
Orioko kultur etxean
2008/10/22

OSPAKIZUNA



Jubilatuak Portugalen

Irailaren 22tik 29ra Portugalen izan ziren herriko jubilatuak. Zaharren Babes Lekuak antolatuta, autobus bete lagun abiatu zen Oriotik Fatima aldera, goizeko 07:00etan. Batalha, Coimbra, Alcobaca (goiko irudian), Lisboa, Estoril eta beste hainbat leku bisitatu zituzten bidaiariek.

Antolatzaileen hitzetan, eguraldia lagun izan zuten eta primeran pasa zuten guztiek. Ikusitako hiri, herri eta eraikinekin txundituta etorri omen dira.

ZORIONAK!



Txikitzaileei

Lehendik ere eman dizkiegu gure zoritxarrak txikitzaileei, baina, zortixarrez, berriz ere lerrootara ekartzeko bidea eman digute. Izan ere, duela pare bat aste, Almirante Oa kaleko egurrezko zazpi lorontzi hautsi zituzten, ostiko, itxura denez. Ez da lorontziok jasaten duten lehen txikizioa, aurrez ere endredatzaileen batek hautsi baitzituen.

Kalteen ondorioz, gainera, lorontziak konpontzeaz gain, bertako loreak ere berrizatu beharko dira, galdu egin baitziren. Beraz, gure zoritxarrak landareak eta lorontziak bakean uzten ez dituztenei.

LUXARBE
Igeltseratza

Igeltseratza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Telefonoa 943 83 59 00

RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

oroztegia
MIRANDA
Jose M. Miranda

farina, ato, berho, askakora...
behar dituen arto lanak
egunero dituztegu

Urdazeta bidea, 1 +659 42 52 70- ZARAOTE

SOLOZABAL
autoeskola

EL

Eusko Gudari, 30-1. ez
telef: 943 83 08 12

Orioko
Herri
Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

OROIMENAREN KUTXA



Eugeni, Modesta Esnal ama alarguna eta Mari Cruz.

KARKARA

Modestaneko gazi-gofoak

Aurtengo urtean itxi dituzte Orioko azken hotel historikoak, Esnal ostatuak, oriotarrontzat Modestanea zenak, zabalik 60 urte eman eta gero. Hotela, sortu zenetik, kanpoko jendeari ostatua emateaz gain, herriko jende askoren aldeko zerbitzu soziala ere egin du. Arrazoi horrengatik Udalak uztailearen 18an omenaldi xume bat egin zuten Modestaneko Eugeni eta Mari Cruz ahizpei. Ekitaldian Torrotxoren bi bertso zituen oroigarri bat eman zitzaion. Honela zioen bigarrenak:

Ama Modestak bere alabei eman zien enkargua: kale gorrian dagoenari eman lotako lekua; estimatua izan da beti Esnaleneko otordua; Mari

Cruz eta Eugeniak bete dute amaren agindua; Oriok eta oriotarrok badugu zer eskertua.

Agindu horixe eman zuten, bai, berak ordura arte egingandako lanari segida emateko. Zenbat eta zenbat istorio ez ote diren gertatu hotel hartako pareten artean! Baina Modestak berak ere gorriak ikusi zituen hotela zabaldu aurretik: bi aldiz ezkondu zen, bi bider alargundu zen, bi gizonak itsasoan itota, eta bi alaba izan zituen, bana senar bakoitzarekin.

Modesta Esnal 1912ko errege egunean jaio zen. Lehenengo senarra, Eujenio Errazkin arrantzale hondarribarra, baporea hondoratuta ito zen 1935ean, 14 gizonen bizia

eraman zuen denborale batean, andrea Eugeniren haurdun zegoela. Modesta berriro ezkondu zen, Orioko Jose Cruz Lopetegi arrantzalearekin. Bigarren senarra ere itsasoan itota hil zen, 36 urte zituela, beste bi gizonekin batera, San Antonio baporea barran hondoratu zenean, 1943an, alaba Mari Cruzek bi urte zituela.

Bi aldiz alargundutako andreak berriro ez ezkontzea erabakita, hotela jartzeko kemena izan zuen, Hotel Esnal, 1948ko abenduaren 5ean zabaldu zena, eta bertan jardun zen lanean 1998an hil zen arte, betiere bi alabek lagunduta.

IÑAKI ITURAIN

JAIOTAKOAK

- Saioa Camino Martin, Orion, urriaren 22an.
- Irati Agirrezabal Azkue, Orion, urriaren 19an.
- Diego Duran Garcia, Orion, urriaren 17an.
- Aiert Fuentes Mujika, Orion, urriaren 14an.

EZKONDUTAKOAK

- Juanjo Rubio San Sebastian eta Patricia Caballero Ganuza, Orion, urriaren 18an.

HILDAKOAK

- Ez da hildakorik izan.

Eskela edo urteurrenko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA

Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

Peikeria eta estetikoa mistoa

ZASS

- Tintak, argiztatze eta koloretan naturalak
- Deslucetarako ointze (maukorra)
- Azkabel emolienteak
- Pediluna
- Depilazioa

See Nihotz, 2 Tel: 943 83 31 70

Zaragueta Eskola Oriu

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuritza.net

JOXEMARI ZALDUA | PERRETXIKOZALEA

“Otarra beti daukat prest, perretxikotara joateko”

Udazkenarekin batera hasi dira perretxikozaleak mendiak arakatzen, eta Joxemari Zalduarekin jardun gara hizketan, zaletasun hau gehiago ezagutzeko.

Nondik datorkizu perretxikotarako zaletasuna?

Hamasei urte nituela edo, nire osaba Patxi topatu nuen mendian behera, perretxikotatik biltzetik zetorrela, otarra betearekin. Nik berdin egin nahi eta otar bete perretxikotatik bildu nuen mendian, lagun batekin. Osabari erakustean, denak zakarrontzira bota zituen eta nik hartutakoan artean *Amanita phalloides* bat erakutsi zidan, hilgarria dena. Liburu bat eman zidan, ikas nezan eta hor piztu zen nire interesa. Gerora, inguruko perretxioei argazkiak ateratzen hasi nintzen eta 200 espezie inguru katalogatu nituen, kapritxo modura.

Lehen urteak liburuari begira pasa zenituen orduan?

Bai, zeren familia batean mota asko dago, eta are espezie gehiago. Usainak eta formak ikasi eta liburuetako argazkiekin konparatzen nituen. Nik ezagutzen nituenak poltsa batean sartzen nituen, eta gainontzekoak beste batean, gero etxean patxadaz begiratzeko. Horrela ikasten da.

Beti bertako mendietan ibiltzen al zarete?

Ez. Kanpora ere ateragara: Avilara, Moncayora...

Behin, koadrilako Koldo eta biok *Picos de European* ginela, txanpinoi moduko batzuk hartu genituen, *psalliotes* familiakoak. Osabak txanpinoi guztiak jangarriak zirela esan zidanez... zuzenean



Osaba Patxirekin ikasi zuen perretxikotatik Joxemari, 16 urte zituela.

KARKARA

“Jende asko aritzen da mendian perretxikotatik zertan dabilen batere jakin gabe”

nean paelara. Prestatzerakoan usain arraroa zuten, eta, jaterakoan, tinta zaporea. Fidotzen ez nintzenez, ez nuen asko jan; Koldok nik baino gehiago. Itzuleran, osabarengana jo nuen, kontu eske. Hark esana gogorarazi nion eta *Hemen ezte izaten, hemen-*

“Badut gogo perretxikotara joateko, baina aurretik ez omen dira batere atara”

dik kanpo... erantzun zidan. Ikasten ari nintzen oraindik.

Eta gure mendietara kanpotarrik etortzen al da?

Hona baino gehiago Soria aldera joaten dira. Katalanak dira gehien mugitzen direnak, esnegorriak biltzera.

Eta fidatzen al dira etxekoak, lagunak...? Zaletasuna jarraitzen duen inor?

Ba, egia esan, Iñakik, semeak, ez du gaia asko jarraitu, baina jaten badaki. Fidotzen dira nitaz.

Urtero izaten da perretxikozalaren baten intoxikazio-oren bat. Zergatik dela uste duzu?

Jende asko aritzen da zertan dabilen jakin gabe.

Hemen inguruan, esaterako, pago ziza eta maltzur (*Entoloma Lividum*) ezpezie-ak nahasten dituenik bada. Bi horiek laminatan ezberdintzen dira, baina batzuek ez dakite.

Badaezpada, nork bildu dituen ez badakit ez dut aurretik jaten, edo prestatu aurretik ikusi ez baditut; kozinatu ondoren oso zaila da jakitea zein perretxiko mota den.

Lizentzia edo baimen berezirik behar al da?

Orain hasi dira arautzen. Araban, orain gutxi, pertsonako eta eguneko 2 kilora mugatu dute perretxikotatik, matxakanen eta masusten bilketa. Nafarroan lehendik ere mugatua zegoen.

Bukatzeko beldurrez edo?

Asko pasa egin dira; behar ez eta hartu...

Perretxikoa lur azpiko mizelio batetik sortzen da, eta esporarik botatzen ez badu zahartu egiten da. Gero eta perretxiko gutxiago dago, Moncayon, adibidez.

Aurtengorako otarra prest al daukazu?

Otarra beti dago prest, egunkari zaharrez beteta. Badut gogo perretxikotara joateko, baina, aurretik ez omen dago perretxikotatik.

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUTZ

Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	06:14	06:44	07:14	07:44	08:14	08:44	09:14	10:14	11:14	12:14	12:44	13:14	13:44	14:14
Zarautz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20

Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	14:44	15:14	15:44	16:14	16:44	17:14	17:44	18:14	18:44	19:14	19:44	20:14	21:14	22:14
Zarautz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ - DONOSTIA

Zarautz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	06:15	06:45	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39

Zarautz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
Aia-Orio	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15	22:45
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39	23:09

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:10
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30
11:40	12:15	12:25		10:30	11:10
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:10
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30
17:40	18:15	18:25		16:30	17:10
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30
19:40	20:15	20:25		19:30	20:10
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00

ASTEBURUETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40

OHARRA: lanegunetan koadro argidun ordutako autobusak Urbiakik pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, guztiak pasatzen dira. Koadro lanetako orduak lanarabiletako (laneguna) zerbitzuak bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio orleko autobus zerbitzua Landabusek delama. Zerbitzuan buruzko informazioa lortzeko zerbait bide daude:

www.landabus.com Tf. 943 24 01 14 sma-e 6360 zerbakira

ITSASOA

Azaroa	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
31	05:15 eta 17:35	11:25 eta 23:38	
1	05:47 eta 18:07	12:00 eta _____	
2	06:21 eta 18:42	00:11 eta 12:36	
3	06:58 eta 18:42	00:46 eta 13:16	
4	07:44 eta 20:12	01:27 eta 14:03	
5	08:43 eta 21:21	02:18 eta 15:03	
6	09:57 eta 22:48	03:28 eta 16:19	☾
7	11:15 eta _____	04:51 eta 17:35	
8	00:04 eta 12:21	06:05 eta 18:37	
9	00:59 eta 13:14	07:00 eta 19:26	
10	01:44 eta 14:00	07:46 eta 20:09	
11	02:25 eta 14:43	08:28 eta 20:50	
12	03:04 eta 15:26	09:10 eta 21:31	
13	03:45 eta 16:10	09:53 eta 22:13	☉
14	04:28 eta 16:56	10:39 eta 22:57	

ZAINTZAKO BOTIKAK

AZAROA

- 3In, Lasa.
- 1an eta 2an, Zulaika.
- 3an, Azaldegia.
- 4an, Etxeberria.
- 5ean, Iriarte.
- 6an, Larrañaga.
- 7an, Mutiozabal.
- 8an eta 9an, Etxeberria.
- 10an, Zulaika.
- 11n, Iriarte.
- 12n, Azaldegia.
- 13an, Mutiozabal.
- 14an, Etxeberria.

- Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- G.Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz

KONTZENTRAZIOA

■ Urriaren 31n, euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko kontzentrazio isila. 20:00etan, plazan.

BINGOA

■ Orion, azteazkenero, bingo saioak, Zaharren Babes Lekuak antolatuta. 16:00etatik 18:30era, kultur etxean.

BILERAK

■ Orion, azaroaren 6an, sanikolasetarako bilera. 19:00etan, kultur etxean.

MEDITAZIOA, MANDALAK

■ Orion, azaroaren 5ean, mandalak eta 12an, meditazioa. 19:00etatik 21:00etara, Iturbide 7ko Xurumurrukoan lokalean.

TRASTE ZAHARRAK

■ Orion, azaroaren 12an jasoko dituzte altzari zaharrak. Bezperan utzi behar dira eta Udalean abisua eman.

MENDI IRTEERA

■ Azaroaren 16an, GR34ko 3. eta azken etapa, Talai Mendik antolatuta. Irteera: 07:00etan autobus geltokitik. Izena ematea: Uranga burdindegian, azaroaren 14a baino lehen.

**Perretxikotara irteera**

Orioko Herri Ikastolak Pagoeta aldera perretxikotara joateko irteera antolatu du azaroaren 8rako. 08:30ean aterako dira ikastolatik, autoz, eta 14:00etarako itzuliko dira Oriora. Interesatuak azoraren 5a baino lehen eman beharko dute izena idazkaritzan. Otarra edo poltsa eta aitzo bat eramatea gomendatu dute azalpenak emango dizkieten Arkamurkako kideek.

ERAKUSKETA

■ Orion, urriaren 29tik azaroaren 26ra, *Oteiza. bizirako proiektua*. 16:00etatik 20:00etara, kultur etxean.

ARETO FUTBOLA

■ Azaroaren 2an, nazional B kategorian: Orioko Tabernak-Cafeteria Ortziri.

■ Azaroaren 9an, nazional B kategorian: Bilbo Exbasa-Orioko Tabernak.

SILO BOLAK

■ Aian, azaroaren 11n. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera deitu: 94381 65 00; edo bertako Igorrekin hitz egin: 66004 97 51.

FUTBOLA

■ Azaroaren 1ean, regionalean: Eibartarrak-Orio. Jubenilean: Orio-Beasain. Kadeteen: Orio-Euskalduna. Infantilean: Vasconia-Orio. Ligan: Mutriku-Orio. F-11n: Orio-Touring.
■ Azaroaren 8an, regionalean: Elgoibar-Orio. Jubenilean: Eibar-Orio. Kadeteen: Internacional-Orio. Infantilean: Orio-Internacional. Ligan: Orio-Anaitasuna.

IPUIN KONTALARIA

■ Orion, azaroaren 13an, Maite Franco ipuin kontalaria. 18:00etan, liburutegian.

HITZALDIA

■ Azaroaren 6an, Garabidek antolatuta, hitzaldia. Gaia: Hego Ameriketako hizkuntza gutxituen errealitatea eta euskal esperientzien ekarpena. Hizlariak: Julio Garcia (maia), Maria Farinango (kichwa), Sandra Caceres (kechwa), Pedro Escurra (Guarania). 19:00etan, udalbatzar aretoan.

HAZI BANAKETA

■ Azaroaren 9an, hazi banaketa, Herriok antolatuta. 11:00-14:00, plazan.

AZOKA**Iragarkietarako txokoa**

Zerbait saldu edo erosi, oparitu, lan eskaintzak, etxea alokatu... nahi baduzu, KARKARAN duzu iragarkietarako txoko berri hau.

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

ALOKAIRUA

■ Edozein negozioko zabaltzeko lokala alokagai Orion, Eusko Gudari kalearen erdi erdian. Informazio gehiago: 943 83 09 29 (Pilar).

SALGAI

■ Volkswagen California T4 salgai: 2000. urtekoa, 2,5 TDI motorra. Ondo zainduta. Tf: 649 89 58 58 (Oidui Usabiaga).
■ Dragon Invacare markako gurgildun aulki elektrikoa eta ranpak salgai. Prezioa: 3.000 euro. Tf: 943 83 27 63.
■ Volkswagen Golf autoa salgai, 1991. urtekoa.

Tf: 630 77 88 07.

■ Sagarminak (makatz basatiak) saltzen dira. Tf: 662 390 838. Felix.
■ Mercedes Class E autoa salgai. 2003. urtekoa, 89.000 km eta ondo zaindutakoa. Tf: 647 10 16 46.

GALDUTAKOAK

■ Zafiro bat duen perla txurizko belarritakoa galdu nuen urriaren 11n, Ardatzatik Blink tabernara bitartean. Estimua handia diot eta aurkitzen duenari asko eskertuko nioke 943 83 13 22 zenbakira deituko balit.
■ Pendrive bat agertu zen

urriaren 24an Eusko Gudariko Charter supermerkatuan. Kolore txuria eta gris metalizatua ditu eta KARKARAKO bulegoan dago gordeta.

■ Zilar koloreko eraztun bat agertu zen espaloian, Orioko kultur etxeko parean, pasa den astean. Kolore ezberdinetako karratu batzuk ditu aurreko partean Jabeak KARKARAREN bulegoan jaso dezake.

LAN ESKAINTZAK

■ Montaje eta ajuste mekanikoan aritutako langilea behar dugu. 669 01 43 49.

URDANETA AUZOKO SAN MARTIN JAIAK

Azaroak 2, Zaharren eguna

11:30ean: Meza nagusia

12:15etan: San Martin pelota txapelketako banako finala.

Ondoren: Banakako gazteen finala.

Jarraian: Herri kirolak, Izeta III eta Izeta IV ren eskutik,

Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariek eta Iser-Alabier trikitilariak laguntzaz.

Segidan: Betizu bazkaria frontoian, zaharrentzako bazkariarekin batera.

18:30ean: Auzoko kalejira, trikitilariak.

22:30ean: Izer eta Alabier trikitilariak Ximor tabernan.



Azaroak 7, ostirala

22:30ean: Mus txapelketa azkarra Indamendi elkartearen.

23:00etan: Ximor taberna irekiko da.



Azaroak 8, larunbata

17:00etan: Korri Xalto eta Brinko pailazoak eta buruhaundiak.

Ondoren: txokolate jana bizkotxoekin.

23:00etan: Laja eta bere taldea.

Goizaldean: Baratxuri zopa.



Azaroak 9, igandea

11:30ean: Meza nagusia

Jarraian: San Martin pelota txapelketako binakako finala eta gazteen binakako finala.

Ondoren: Herri kirolak, Astiazaran trikitilarien laguntzaz:

Olasagasti, Mugerza, Etxebeste eta Txapartegi aizkolariak, eta Izeta II harri jasotzailea

Segidan: Pelota txapelketako sari banaketa eta San Martin jaietako afarien zozketa.

17:00: Dema: Saberriko idi parek, Inmdate Berriko behorra eta Izetako idi parek.

Iluntzean eta afal ondoren: Astiazaran anaiekin erromeria, Ximor-en.



Azaroak 11, San Martin eguna

11:00etan: Meza nagusia

12:00etan: Auzoko herri kirolak, Aratz eta Erlantz trikitilariak: trontza, txinga, toka eta ahari jokoak.

Afal ostean: Aratz eta Erlantz trikitilariak erromeria.

Azaroak 12, Oilasko biltze eguna

07:00etan: Diana eta oilasko biltzea Alaitz eta Izerrekin.

21:00etan: Afaria bildutako oilaskoekin Indamendi elkartearen.

Afal ondoren: Erromeria Alaitz eta Izerrekin.

Jarraian: Patata dantza txapelketa eta traka zaratatsua.

